

ARTISTAK GARA GU

Testua: MARÍA JOSÉ FLORIANO

Irudiak: FEDERICO DELICADO

Itzulpena: JONE IRAZU GARIKANO

Kartoizko azala. 24,5 x 21,5 cm. 48 or. 15 €

[Artistak gara gu](#) (euskara)

ISBN 978-84-9172-293-9. Album irudidunak. Egile lanak.

[El Gallinero](#) (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-162-8. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

[Terra de ninguén](#) (galegoa)

ISBN 978-84-1343-161-1. Álbum ilustrado. MareMar.

[Terra de ningú](#) (katalana)

ISBN 978-84-18558-47-4. Álbum ilustrat. Obres d'autor.

[Terra de ninguém](#) (portugesia)

ISBN 978-984-749-160-3. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

[La terra di nessuno](#) (italiera)

ISBN 978-84-1343-151-2. Albo illustrato. Gli albi di autore.

Arratoiak, xiringak, su-hondarrak saihesten ibiltzen gara egunero.

Txaboladian, akrobatak gara.

Oreka gordetzen dugu kobrezko harien artean...

«Artistak gara gu» Cañada Realen gertatzen da, Europa guztiko txaboladi handienean. Gune marjinal horretan kokatzen du Maria José Florianok bere ipuin hunkigarria, bertako milaka pertsonen errealitate gogorra literatura bilakatuz haurtzaroaren begirada samur, ezti eta sortzailearen bitartez.

Ezinbesteko obra bat, ausarta eta gizartetik baztertutakoekin konprometua, inguru horietan bizi diren haurrei ahotsa ematen diena, eta aspalditik datorren problematika agerian jartzen duena, eraikinen desegitea eta familien birkokatzea tartean direla.

Nabarmentzekoa da protagonistek eguneroko bizitzari ematen dioten dimentsio metaforikoa, arrisku egoeretan zirkuko jolasak eginez eta izaera ludiko hori helduen mundura ere zabalduz, biziraupenaren eta legalitatearen arteko tentsioan. Baliabide eza gorabehera, erresilientzia eta itxaropena duten umeak dira, daukaten gutxia irudimena lantzeko erabiltzen dutenak, haien ametsak, emozioak, dudak eta ilusioak proiektatuz aldi berean.

Federico Delicadoren ilustrazioek, detaile alegorikoz beterik, bikain osatzen dute testua, errealitatera ekarriz hitzen dimentsio sinbolikoa.

www. **kalandraka**.com
comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**.com
etxea
soltxate@pamiela.com



■ **Gala:** Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden haurrak

■ **Adin egokiak:** 6 uretatik aurrera.

■ **Nabarmentzekoak:** Pobrezia, marjinaltasuna, desberdintasunak, elkartasuna, justizia soziala, giza duintasuna, haurren eskubideak; afektuak, emozioak, adiskidetasuna, familia; jolasak, sormena, irudimena. Federico Delicadoren beste lan batzuk euskaraz: «[Ikar](#)», «[Bidaia luzea](#)», «[Ravelen Boleroa](#)».

■ **Liburuaren lagina:**

<https://www.kalandraka.com/artistak-gara-gu-euskara.html>

María José Floriano

(Madril, 1976)

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna, hainbat irratitan, telebista-katetan eta produkzio-etxetan lan egin du kazetari gisa, hala nola Prisa Internacional-en, El Mundo TVn edo Antena 3n. Gaur egun bere literatura-alderdia lantzen du egile gisa, hitzaldiak eta idazketa-tailerrak ematen ditu, eta sormena lantzeko eta irakurtzera animatzeko jarduerak garatzen ditu adin guztietako publikoarekin egindako topaketen eta irakurketa-kluben bidez.

<http://www.tirandodelirizo.com/>

Federico Delicado

(Badajoz, 1956)

Arte Ederretan lizentziatua Unibertsitate Konplutentsean. 1980an, ikus-entzunezko materialak eta prentsarako lanak egiten hasi zen. Pintura eta eskultura erakusketetan parte hartu du. Haur eta gazteentzako liburu ugari argitaratu ditu. Jaso dituen sarien artean, Lazarillo 2020 Saria eta «Ikar» filmagatik irabazitako Album Ilustratuaren Nazioarteko VII. Konpostela Saria nabarmentzen dira. Azken hori The White Ravens 2015, IBBY (ilustrazioa) 2016 eta Fundación Cuatrogatos 2016 ohorezko zerrendetan ere agertzen da.

<https://www.instagram.com/delicadofederico/>

